

Ibaetako campusean egindako konpostaren analisisien emaitzen azterketa

Egilea: JM Rivadeneyra.

Ibaetako campuseko konpostgunearen koordinadorea.

Data: 2023-2-9

Emaitzen laburpena:

Analisi mikrobiologikoa

Bere helburua osasunerako kaltegarriak izan daitezkeen patogenoen presentzia neurtzea da. Erreferentziako balioa ez bada gainditzen, ekoiztutako konposta erabil daiteke elikagaien ekoizpenean. Konpostaren kasuan, legeak ezartzen dizkio mugak E. Coli eta salmonella bakterioen presentziari.

Ondoko taulan ditugu araututako mugak eta gure laginetan neurtutakoa:

Neurtutako parametroa	Erreferentziako balioa: 506/2013 Errege Dekretuko V eranskina, 4. atala (Ongarrien araua).	Laginetan atzemandakoa
<i>E. coli</i> (MGko gramo batean NMP)	NMP < 1000	4a ontzia: 93 5 ontzia: 23 6 ontzia: 21
<i>Salmonella sp</i> (MGko 25 mg-tan agertutakoa)	Agertu ez 25 gr-tan.	4a ontzia: Ez da agertu 5 ontzia: Ez da agertu 6 ontzia: Ez da agertu

MG: materia gordina

NMP: Número Más Probable

Gure konpostak betetzen ditu ezarritako mugak, eta, ondorioz, ez dago inongo osasun arriskurik konpost hori elikagaiak ekoizteko erabiltzen bada.

Analisi fisiko-kimikoa

Konpostaren kalitatea neurtzeko egiten dira. Batez ere kontrolatzen da metal astunen agerpena, konpostaren garbitasuna bermatzeko, eta konpostaren gatz disolbagarrien neurria (eroankortasuna), lurretan eragin dezakeen deshidratazio-efektua mugatzeko. Neurtutako parametroen arabera, konpostaren sailkapen hauek egiten dira:

- [506/2013](#) Errege Dekretuaren V eranskina, 4. atala: konposta sailkatzen du A, B, edo C klasetan, metal astunen presentziaren arabera. A hoberena da.

- [Europako etiketa ekologikoa](#) (EEE edo Ecolabel): produktu baten izaera sostengarria identifikatzeko erabiltzen da. Konpostaren kasuan, [hainbat parametro](#) kontrolatzen dira, tartean metal astunen presentzia eta eroankortasuna.
- [NTEJ 05C](#) Loregintza eta Paisajismoaren Arau Teknikoa: konposta sailkatzen du I. klasea (goi mailako kalitatea), II. klasea (erdi mailakoa) eta III. klasea (gutxiengo kalitatea) kategorietan eroankortasunaren arabera, lorezaintzan erabili ahal izateko.

Ondoko taulan ditugu araututako mugak eta gure laginetan neurtutakoa:

		Erreferentziako balioak			Laginetan atzemandakoa
		506/2013 ED	Ecolabel	NTEJ 05C	
Neurtutako parametroa					
Eroankortasuna ($\mu\text{S}/\text{cm}$)			< 1500	I. Klase: <2000 II. Klase: <3000 III. Klase: <4000	1640
Metal astunak ($\text{mg}/\text{kg ML-an}$)	Kadmioa	A: 0,7 B: 2 C: 3	< 1		<0,7
	Kobrea	A: 70 B: 300 C: 400	< 100		38,3
	Nikela	A: 25 B: 90 C: 100	< 50		3,55
	Beruna	A: 45 B: 150 C: 200	< 100		<2,5
	Zinka	A: 200 B: 500 C: 1000	< 300		219
	Merkurioa	A: 0,4 B: 1,5 C: 2,5	< 1		Ez dute egiten
	Kromoa	A: 70 B: 250 C: 300	< 100		3,31

ML: Materia Lehorra

Emaitza hauen arabera, gure konpostak:

- Konpostaren garbitasunari dagokionez, **Ecolabel lortzeko neurriak betetzen ditu**, eta A klasekoa izateko parametroak betetzen ditu, zinka ezik ($219 > 200$). Beraz, B klasean sailkatu behar da [506/2013 ED](#)-aren arabera.
- Eroankortasunari dagokionez, **I. Klasekoa izateko neurriak betetzen ditu**.